

XXXVI. ERANDIOKO HERRI KROSAREN ARAUDIA



1.- ANTOLAKUNTZA

Escuela Atlética- C.A. Erandio klubak ERANDIOKO HERRI KROSA antolatu du aurten ere, ohi bezala. Erandioko Udalak babestutako ekitaldia da eta adin guztietako pertsonak parte har dezakete.

Kirol-ekitaldia Erandion izango da, 2025eko azaroaren 9a, 10:30etik aurrera, eta hainbat proba daude programatuta; eskola-kategoriakoak, lasterketa familiarra eta nagusien lasterketa. Irteera eta helmuga Tartanga kalearen 20an kokatuko dira, Erandioko kiroldegia parean.

2.- IZEN-EMATEA (DOAKOA GUZTIENTZAT)

A) Eskola-kategoriak (ON LINE IZEN-EMATEA):

8 urtez azpikoak..... Pre-benjaminak 2018-2019 (ez da lehiaketa).

10 urtez azpikoak.... Benjaminak 2016-2017

12 urtez azpikoak.... Alebinak 2014-2015

14 urtez azpikoak.... Infantilak 2012-2013

16 urtez azpikoak.... Kadeteak 2010-2011

SPORTMANIACS.....XXXVI. ERANDIOKO HERRI KROSA gunearen izen-emate plataformarako sarbide bat jarriko da. Horren bidez, parte-hartzaile bakoitzak dagokion formularioa beteko du, eta konfirmazio e-maila jasoko du.

Izena emateko epea: urriaren 20etik, astelehena, azaroaren 7ra.

EZ DA IZEN-EMATERIK EGINGO AZAROAREN 9AN, IGANDEA.

Dorsalak hartzea: ekitaldiaren egunean, 9:30etik 12:00etara, Erandioko Kiroldegiko idazkaritzan. Helbidea: Tartanga kalea 20.

Dortsala ondo ikusteko moduan jarri behar da, bularraldean.

Azaroaren 9an, igandean, pertsona batek bere taldeko izen-emate guztiak jasoko ditu.

B) Lasterketa familiarra (EZ DA BEHARREZKOIA IZEN-EMATEA):

Parte-hartzaileak irteera-lerroan izango dira familia-lasterketaren hasierarako dagokien orduan. Lasterketa hau ez da lehiaketa-ekitaldi bat; bere helburua familiarekin, lagunekin eta abarrekin kirol-dibertsio minutu bartzuk partekatzea eta gozatzea da.

C) Nagusien lasterketa (ON LINE IZEN-EMATEA):

18 urtez azpikoak – 20 urtez azpikoak 2009 – 2008 – 2007 - 2006

Seniorra.. 2005 eta aurrekoak

Master 1 (M 35)..... 35/44 urte, probaren egunean.

Master 2 (M 45)..... 45/54 urte, probaren egunean.

Master 3 (M 55)..... 55/100 urte, probaren egunean.

SPORTMANIACS.....XXXVI. ERANDIOKO HERRI KROSA gunearen izen-emate plataformarako sarbide bat jarriko da. Horren bidez, parte-hartzaile bakoitzak dagokion formularioa beteko du, eta konfirmazio e-maila jasoko du.

Izena emateko epea: urriaren 20etik, astelehena, azaroaren 7ra.

EZ DA IZEN-EMATERIK EGINGO AZAROAREN 9AN, IGANDEA.

Dorsalak hartzea: ekitaldiaren egunean, 9:30etik 12:00etara, Erandioko Kiroldegiko idazkaritzan. Helbidea: Tartanga kalea 20.

Dortsala ondo ikusteko moduan jarri behar da, bularraldean. DORTSALA TXIPAREKIN NAGUSIEN KARRERARAKO.

Azaroaren 9an, igandean, pertsona batek bere taldeko izen-emate guztiak jasoko ditu.

3.- IBILBIDEAK, ORDUTEGIAK ETA DISTANTZIAK

Webgunean, www.atletaerandio.com, informazio-diptiko bat dago; lasterketa bakoitzaren ordutegiak eta bakoitzak dituen gutxi gorabeherako distantziak agertzen dira.

Era berean, 3 ibilbideen planoak ikusgai jarriko dira (eskola mailakoa, familiarra eta nagusia).

Eskola-kategoriak 10:30etik aurrera, familiarra 11:50ean eta nagusiak 12:30ean.

4.- SARIAK (helmugara heltzean eta 13:00etan Udaletxeko plazan)

A) Eskola-kategoriak: janaria eta edaria helmugan.

Ekitaldia oroitzeko domina.

Zozketarako txartela (100 opari inguru emango dira).

Kategoria bakoitzeko lehenengo 6 postuetarako trofeoa (pre-benjaminak izan ezik).

B) Lasterketa familiarra: janaria eta edaria helmugan.

Zozketarako txartela (100 opari inguru emango dira).

C) Nagusien lasterketa: janaria eta edaria helmugan.

Ekitaldia oroitzeko domina.

Zozketarako txartela (100 opari inguru emango dira).

Zozketarako txartela (hainbat sari esku-dirutan).

Kategoria bakoitzeko lehenengo 4 postuetarako trofeoa.

Txapela irabazleentzat (gizonezkoa eta emakumezkoa).

5.- BORONDATEZKO EKARPENAK

Erandioko Atletismo Eskolak DOAKO IZEN-EMATEAREN alde egin du beti.

Zuen ekarpenak ongi etorriak izango dira:

LABORAL KUTXA ES22 3035007410.0740701025. ESKERRIK ASKO!!

6.- BESTELAKOAK

Gurutze Gorriaren anbulantzia eta osasun taldea irteeran eta helmugan.

Ekitaldiak gizarte erantzukizuneko aseguruia dauka, baita istripu-aseguruia ere.

Aldagelak, duxak eta jantzitegia Erandioko Kiroldegian.

Aparkalekuak itsasadarreko errepidean. Erandioraino metroz etortzea gomendatzen da. Geltokiaren atzeko aldetik joanda, 300 m Kiroldegia dago (bertan daude irteera eta helmuga).

Probak kontrolatzen arituko dira Erandioko Atletismo Eskolako boluntarioak, Udaltzaingoa, Erandioko Babes Zibila, Uribealdeko Gurutze Gorria eta Bizkaiko Atletismo Federazioko epaileak.

Trofeoak entregatu ostean zozketa egingo da, eta hainbat sari emango dira esku-dirutan.

Sailkapenak: www.sportmaniacs.com eta www.atletaerandio.com

XXXVI. ERANDIOKO HERRI KROSAREN argazkiak

<https://fotosdeporjolansope.blogspot.com/?m=1> orrian.

7.- ESNE ETA OLIO BILKETA SOLIDARIOA

Kirol-ekitaldia egiten den bitartean, 10:00etatik 13:00etara eta irteera eta helmuga gunean, URIBEALDEA GURUTZE GORRIAREN ibilgailuak egongo dira eskuragarri, parte-hartzaile bakoitzak eman nahi duen ESNEA ETA OLIOA jasotzeko.

GURUTZE GORRIA arduratuko da sailkapenaz eta banaketaz.

8.- ADIERAZPEN ARDURATSUA

Parte-hartzaileek (adinez nagusiak edo legezko ordezkariak, adingabeen kasuan) beren borondatez parte hartuko dute, eta beren erantzukizunpean, beraz, kalte fisiko edo materialik izanez gero, ez diote Antolakuntzari erantzukizunik eskatuko.

Parte-hartzaile guztiek hartzen dute hemen azaldutako Araudia betetzeko konpromisoa.

9.- IRUDI-ESKUBIDEAK

Araudi hau onartzeak eta lasterketan parte hartzeak esan nahi du parte-hartzaileek baimena eman dutela (adinez nagusiak, eta legezko ordezkariak adingabeen kasuan) Antolakuntzak ekitaldiaren argazkiak eta grabaketak egiteko, eta horiek publizitate moduan erabiltzeko.

10.- DATUEN BABESA

Datu pertsonalen babesari buruzko Legea betetze aldera, jakinarazten da izen-ematean emandako datuak ERANDIOKO HERRI KROSA izeneko fitxategian sartuko direla. Helburuak: nagusien zerrenda eta dortsalak esleitzea, proba guztien sailkapena egitea eta informazioa ematea.